



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUN- TZA DEIALDIA

2017KO URTARRILETIK ABENDURA



GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

2017ko urtariletik abendura

1. DEIALDIAREN XEDEA

Gasteizko ikastetxeei edo Ikasleen Gurasoen Elkarteei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea; hain zuzen ere, bertan, 2017ko urtariletik abendura, eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko erraztasunak emate aldera.

2. NORENTZAT

Betebehar hauek betetzen dituzten ikastetxeek edo Ikasleen Gurasoen Elkarteek (IGE) eskuratu ahal izango dute diru-laguntza:

- Ikastetxea Gasteizko udalerrian kokatua egotea edo, gutxienez, ikasleen % 60 udalerrian erroldatua egotea.
- Ikastetxea 2017. urtean eskola-baratze baten proiektua garatzen aritzea, edo garatzeko asmoa izatea, landaketa ekologikoaren alorreko irizpideetan oinarrituta.
- 2017 urtean jarduera horiek egiteak gastuak ekarri izana –fakturen bitartez egiaztatu daitezkeenak–, eskola-baratzearen jarduerari estu-estu lotuak. Honako hauek joko dira eskola-baratzearen jarduerarekin zerikusia duten gastutzat:
 - 2017. urtean ikastetxean egiten diren nekazaritzaren eta basozaintzaren alorreko jarduerari buruzko ikastaro, hitzaldi eta lantegien antolakuntza.
 - Materialak erostea: lanabesak, eskola-baratzeen egiturak eraikitzeko materiala, landatzeko mahaiak, landareak, haziak eta nekazaritzaren eta basozaintzaren alorreko bestelako materialak.
 - Nekazaritzaren eta basozaintza gaia jorratzen duten dokumentuak – paperezkoak nahiz digitalak– erostea.
 - Nekazaritzaren eta basozaintzaren alorreko eremua sortu, mantendu edo hobetzearekin zerikusi zuzena duten obra edo lanak egitea.
 - IGiko teknikarien iritziz horien parekotzat jo daitezkeen bestelako gastuak.
- Behar diren argibideak eman beharko dituzte ikastetxeek, baita, beharrezkotzat jotzen bada, IGiko teknikariei bertara sartzen utzi ere, aurkeztu dituzten fakturak eta eskola-baratzeen proiektuetan gauzatutakoak bat datozela egiaztatzerik izan dezaten.
- **Ikastetxeek eskabide bakarra aurkeztu ahal dute, dela ikastetxearen izenean, dela bertako ikasleen gurasoen elkartearen izenean.**



3. AURREKONTU ZUZKIDURA ETA DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuko 0110.1722.471.02 partidan bada aski krediturik: 12.000,00 euro.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak eskola-baratzeetako jarduerak sortutako gastuetarako ikastetxe edo ikasleen guraso elkarte bakoitzari diru-laguntza gisa emango dion kopurua behar bezala justifikatutako gastuaren % 50ekoa izango da. Ikastetxe edo ikasleen gurasoen elkarte bakoitzeko, diru-laguntza ez da izango, inolaz ere, 1.000 eurotik gorakoa, BEZ barne.

Baldin eta diru-laguntza horietarako dagoen aurrekontuak ez badu aukerarik ematen onartzen diren eskabideetan aurkeztutako gastuen % 50 estaltzeko, hainbanaketa egingo da, diruz lagundutako ehunekoa murriztuz, harik eta dagoen aurrekontuarekin aurre egin dakioken kopurura egokitu arte.

4. ESKABIDEA AURKEZTEKO EPEA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Diru-laguntza eskabidea, 2017ko abenduaren 15era arte aurkezteko aukera izango da, egun hori barne, eskabideak aurkeztuko dira Udal Erregistroan edo Udal Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan.

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie eskabideei:

- **Eskabidea** (*I. eranskina*), ikastetxeko zuzendariak aurkeztua edo (*II. eranskina*), ikasleen gurasoen elkarteko lehendakariak aurkeztua.
- Ikastetxean gauzatzen ari den edo gauzatuko den **eskola-baratzearen proiektua**. Proiektuaren helburuak, metodologia eta jarduerak azaldu beharko dira bertan, zer leku baliatuko diren eskola-baratzea egiteko eta zein beharri erantzungo zaien eskatzen den diru-laguntzarekin.
- **Gastuen justifikazioa**. Jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira, bertan zehaztuta ageri direlarik zenbatekoa, gastua ekarri duen jarduera edo materiala eta data (*III. eranskinarekin batera*). Fakturen fotokopiak aurkeztuz gero, jatorrizko fakturak ere erakutsi beharko dira, erkatzeko (*IV. eranskinarekin batera*).
- Ikastetxea Gasteizko udalerritik kanpo egon arren ikasleen ehuneko 60tik gora udalerritik horretan erroldatua badago, **Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren edo ikastetxeko zuzendariaren eta idazkariaren ziurtagiria** aurkeztu beharko da, hala dela jasota uzteko.
- Harremanetan jartzeko telefonoa.
- Ikastetxearen edo ikasleen gurasoen elkartearen kontu zenbakia, diru-laguntzaren zenbatekoa sartu ahal izateko



5. DEIALDIAREN EBAZPENA

Aurkezten diren eskabideak onartzen direlarik, eta oinarri hauetan ezarritako irizpideak betetzen dituztelarik, laguntza eman dela ulertuko da, nahikoa aurrekontu-kreditu dagoen heinean. Hala izan ezean, hainbanaketa egingo da onartutako eskabideen artean.

Edonola ere, prozeduraren ustezko ebazpena 2017ko abenduaren 30 baino lehenago egingo da, ekitaldia amaitzearekin batera.

6. LAGUNTZAK ORDAINTzea ETA JUSTIFIKATZEA

Jasotako eskabideak eta diruz lagundutako jarduerak sortutako gastuen justifikazioak aztertu ondoren egingo da ordainketa. 2017ko abenduaren 15era arte egongo da zabalik eskabideak aurkezteko epea, egun hori barne.

Diru-laguntzaren ordainketa gauza dadin, agiri hauek aurkeztu beharko dira Ingurugiro Gaietarako Ikastegian:

Ikastetxeen kasuan:

- Foru Ogasunari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ikasleen Gurasoen elkarteen kasuan:

- Ikasleen Gurasoen Elkartea Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria
- Deialdian parte hartzeko erabakia jasotzen duen bileraren aktaren fotokopia
- Deialdi honetarako zuritutako gastuak biltzen dituen kontu-liburuaren kopiak

7. DIRUA ITZULTZEA

Itzuli egin beharko dira jasotako diru-kopuruak –berandutze interesak barne, diru-laguntza ordaindu zenetik kontatuta–, baldin eta Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantzaren (2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO) 20. artikuluan jasotako zirkunstantzietakoren bat egokitzen bada.

Dirua itzultzeko prozedura aipatutako Diru-laguntzei buruzko Ordenantzan araututakoaren araberakoa izango da, onuradunaren jokabideak berekin ekar litzakeen arau-hauste eta isunak gorabehera.

8. LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Ematen den diru-laguntza bateragarri izango da helburu berarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatuk ematen dituztenekin, jardueraren gain-finantziatorik gertatzen ez den bitartean. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienezko mugaraino.



9. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- Gasteizko Udaleko Kontu-hartzailera Nagusiari dagozkion ikuskatzeko eta finantzak fiskalizatzeko lanak onartu eta laguntzea.
- Behar diren argibideak eman beharko dituzte ikastetxeek eta ikasleen gurasoen elkarrekin, baita, beharrezkotzat jotzen bada, IGko teknikariei bertara sartzen utzi ere, aurkeztu dituzten fakturak eta eskola-baratzeen proiektuetan gauzatutakoak bat datozela egiaztatzerik izan dezaten.
- Helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, jakinaraztea.
- Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari horren berri ematea, nahiz zerbitzu horrek eskatzen duen edozein informazio ematea.
- Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzako betebeharrak betetzea.

10. ARAU-HAUSTEAK ETA ISUNAK

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan xedatutakora egokituko da arau-hauste eta zigoren erregimena.

11. APLIKAGARRI DEN LEGEDIA

Oinarri hauetan aurreikusitako gabeko kontuetan, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko Lege Orokorra, Herri Administrazioek emandako diru-laguntzei aplikatzeko; ekainaren 19ko 7/1997 Legea, diru-laguntzen eta laguntzen erregimena arautu eta Euskal Herriko Herri-ogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legea aldatzen duena (1997ko uztailaren 16ko EHAA, 135. zk.), eta Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantza.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko apirilaren 7an

Iñaki Prusilla Muñoz

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakaria



I. ERANSKINA

GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

2017. urtea

_____ jaunak / andreak

—nortasun-agiria: _____—, ikastetxe honetako zuzendaria den aldetik:

—IFK/IFZ: _____—, helbidea: _____

ADIERAZTEN DU

GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAren oinarriak aintzat hartu dituela, eta, horrenbestez, hauxe:

ESKATZEN DU

deialdi horrek arautzen duen laguntza eman dakiola.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko

(izenpea eta zigilua, jatorrizkoak)

INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGIAREN LEHENDAKARIA

Udal kudeaketari dagozkion zereginak egitea beste helbururik ez duten fitxategietan sartuko dira zure datu pertsonalak. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dizkizun eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Gasteizko Udalaren argibide bulegoetakoren batera.



II. ERANSKINA

GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

2017. urtea

_____ jaunak / andreak

—nortasun-agiria: _____—, ikastetxe honetako ikasleen gurasoen
elkarteko zuzendariak den aldetik:

—IFK/IFZ: _____ —, helbidea: _____

ADIERAZTEN DU

GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO
DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAren oinarriak aintzat hartu dituela, eta, horrenbestez, hauxe:

ESKATZEN DU

deialdi horrek arautzen duen laguntza eman dakiola.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko

(izenpea eta zigilua, jatorrizkoak)

INGURUGIRO GAIETARAKO IKASTEGIAREN LEHENDAKARIA



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

Udal kudeaketari dagozkion zereginak egitea beste helbururik ez duten fitxategietan sartuko dira zure datu pertsonalak. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dizkizun eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Gasteizko Udalaren argibide bulegoetakoren batera.



III. ERANSKINA

GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

2017. urtea

Jatorrizko fakturen egiaztapena

(Diru-laguntza justifikatzeko jatorrizko fakturak aurkezteko idazkia)

_____ jaunak / andreak,

honako hau ordezkatzeko duelarik: _____

EGIAZTATZEN DU:

Aurkezten diren faktura, ordainagiri eta gastu-egiaztagiriak GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAN aurreikusitako helburu edo xedea lortze bidean sortuak direla eta Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren ekarpena baliatu zela horiek finantzatzeko.

Eta, Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan xedatutakoa betetze aldera, hala sinatzen du, egiaztagiri balioa izan dezan.

Vitoria-Gasteizen,

(izenpea eta zigilua, jatorrizkoak)



IV. ERANSKINA

GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

2017. urtea

Jatorrizko ez diren fakturen egiaztapena

(Diru-laguntza justifikatzeko fakturen fotokopiak aurkezteko idazkia)

_____ jaunak / andreak,

honako hau ordezkaten duelarik: _____

EGIAZTATZEN DU:

Aurkezten diren faktura, ordainagiri eta gastu-egiaztagiria GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAN aurreikusitako helburu edo xedea lortze bidean sortutako kopia direla eta Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren ekarpena baliatu zela horiek finantzatzeko.

Jatorrizko agiriak eskuragarri daude, ikuskatu nahi izanez gero ere.

Eta, Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan xedatutakoa betetze aldera, hala sinatzen du, egiaztagiri balioa izan dezan.

Vitoria-Gasteizen,

(izenpea eta zigilua, jatorrizkoak)

Udal kudeaketari dagozkion zereginak egitea beste helbururik ez duten fitxategietan sartuko dira zure datu pertsonalak. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dizkizun eskubideez baliatu nahi baduzu, jo ezazu Gasteizko Udalaren argibide bulegoetakoren batera.